

GOI-MAILAKO HEZKUNTZAREN EUROPAKO ESPARRUA

Europako irakaskuntzako ministroen baterako deklarazioa

Bolonia, 1999ko ekainaren 19a

Europar prozesua, azken urteetako lorpen bikainei esker, errealitate konkretuago eta erabakigarriagoa bihurtu da Europar Batasunaren eta haren herritarren bizitzan. Handitzeko eta Europako beste herrialde batzuekin harremanak intentsifikatzeko perspektibek are eta dimentsio zabalagoak ematen dizkiote errealitate horri. Horrekin batera, eta ikusten ari garenez, gero eta kontzientziario handiagoa dago, arlo politiko-akademikoaren eta iritzi publikoaren zati askotan, Europako eraikuntzari artikulazio bereizi eta konpleto bat ematearen premiaren inguruan, eraikuntza horren dimentsio intelektual, kultural, sozial, zientifiko eta teknologikoak indartuta batez ere.

Ezagutzen Europak onespren zabala du hazkunde sozial eta giza hazkunderako faktore ordezkaezin gisa, eta ezinbesteko elementu gisa europar herritartasuna sendotu eta aberasteko, Europako herritarrei beharrezko eskumenak emanez milurteko berriaren erronkei aurre egiteko, partekatutako balioen kontzientziarioarekin eta gune sozial eta kultura erkide bateko kide izatearekin batera.

Planteamendu horietan oinarritua, 1988ko maiatzaren 25eko Sorbonako deklarazioak azpimarratu egin zuen unibertsitateen zeregin nagusia dimentsio kultural europarraren garapenean. Era berean, goi-mailako hezkuntzaren Europako esparruaren eraikuntza azpimarratu zuen funtsezko tresna gisa herritarren mugikortasunaren, haien okupagarritasunaren eta kontinentearen garapen globalaren sustapenean.

Europako hainbat herrialdek onartu dute deklarazioan azaldutako helburuak lortze aldera konprometitzeko gonbidapena, sinatu zutenek zein beren adostasuna adierazi zutenek. Bitartean Europan abiarazitako goi-hezkuntzaren hainbat erreformak hartu duten norabidea ildo horretan jarduteko gobernu askoren konpromisoaren erakusgarri nabarmena da.

Bestalde, goi-mailako hezkuntzaren Europako jarraibideek erronka onartu dute eta paper nagusia hartu dute beren gain goi-mailako hezkuntzaren Europako esparruaren eraikuntzan, 1988ko Boloniako Magna Charta Universitatum idazkian adierazitako funtsezko printzipioen esparruan. Gertakari horrek funtsezko garrantzia du, unibertsitateen independentziak eta autonomiak goi-mailako hezkuntzako eta ikerketako irakaskuntza-sistema gizartearen eta jakintza zientifikoaren premia eta eskakizunetara etengabe egokituko direla bermatzen baitute.

Helburu sendoekin dago ezarrita jada norabidea. Haatik, goi-mailako hezkuntzako sistemen bateragarritasun eta konparagarritasun handiagoa lortzeak etengabeko bultzada eskatzen du. Neurri konkretuen bidez babestu beharko genuke hori guztia aurrerapauso nabariak egiteko. Ekainaren 18ko hitzarmena, zeinean gure herrialde guztietako aditu eta azterlariek parte hartu baitzuten, argibide ezin erabilgarriagoak eman ditu ekin beharreko ekimenari dagokionez.

Goi-mailako hezkuntzaren Europako sistemaren nazioarteko lehiakortasuna hazteko helburua aztertu beharko genuke batez ere. Edozein zibilizazioaren bizitasuna eta efikazia zibilizazio horrek beste herrialdeen gain eragiten duen erakarpenaren bidez neur daitezke. Goi-mailako hezkuntzaren Europako sistemak gure tradizio kultural eta zientifiko zoragarriari dagokien erakarpen-maila har dezala ziurtatu beharko genuke.

Sorbonako deklarazioan adierazitako printzipio orokorrekiko gure babesa sendotzeaz gain, gure politikak koordinatzeko konpromisoa hartzen dugu epe laburrera, eta edozein kasutan ere hirugarren milurtekoko lehenengo hamarkada baino lehen, honako helburu hauek lortzeko, guretzat funtsezko garrantzia dutenak goi-mailako Europako esparrua ezartzeko eta goi-mailako Europako sistemaren mundu osoko sustapenerako:

- Irakargarritasun eta konparagarritasun sinpleko titulu-sistema bat hartzea, Diploma Supplement dokumentua sartzearen bidez, Europako herritarren okupagarritasuna eta goi-mailako Europako sistemaren nazioarteko lehiakortasuna bultzatzeko.
- Funtsean bi ziklo nagusitan oinarritutako sistema bat hartzea, lehen eta bigarren mailakoa hurrenez hurren. Bigarren ziklora sartzeak lehen zikloko ikasketak ongi amaitzea eskatzen du, ikasketa horiek hiru urte irauten dutela kontuan izanda. Lehen zikloaren amaieran emandako titulua kualifikazio gisa erabili ahalko da Europako lan-merkatuan. Bigarren zikloak master- edo doktorego-titulu batera eraman behar du, Europako herrialde guztietan bezala.
- Kreditu-sistema bat ezartzea –ECTS eredu, esaterako– ikasleen mugikortasuna sustatzeko bitarteko gisa. Kredituak beste testuinguru batzuetan ere eskura daitezke, hala nola etengabeko irakaskuntzaren testuinguruan, betiere dagozkion unibertsitate hartzaileek onesten badituzte.
- Mugikortasunaren sustapena, oztopoak desagerrarazita zirkulazio librea egikaritzeko, honako hauetan arreta berezia jarrita:
 - Ikasleentzat: ikasketa- eta prestakuntza-aukeretarako sarbidea, eta lotutako zerbitzuetarakoa.
 - Irakasleentzat, ikertzaileentzat eta langile tekniko-administratiboentzat: irakaskuntzarekin eta prestakuntzarekin lotutako europar testuinguruetan izandako ikerketaldietako onespina eta balorizazioa, hartutako eskubideak aparte utzi gabe.
 - Europar lankidetzaren sustapena kalitate-bermean irizpide eta metodologia konparagarriak diseinatzeari begira.
 - Goi-irakaskuntzan beharrezkoak diren europar dimentsioen sustapena, batez ere hainbat punturi dagokionez, hala nola curriculum-garapena, erakundearteko lankidetzaren mugikortasun-planak eta ikasketako, prestakuntzako eta ikerketako programa integratuak.

Guk helburu horiek lortzeko konpromisoa hartzen dugu –gure eskumen instituzionalen markoaren barruan eta errespetu osoarekin kulturen, hizkuntzen eta irakaskuntza-sistema nazionalen aniztasunari eta unibertsitate-autonomiari– goi-irakaskuntzako Europako esparrua sendotzeko. Horretarako, gobernuen arteko lankidetzabideetatik joko dugu, baita goi-irakaskuntzako gaietan eskumenak dituzten gobernuen kanpoko Europako erakundeen bideetatik ere. Unibertsitateek laster eta modu positiboan erantzutea espero dugu, eta laguntza aktiboa izan dezatela gure ekimenaren arrakastarako.

Goi-mailako hezkuntzaren Europako esparrua ezartzeak bilakaera betean dauden gure premiak babestea, zaintzea eta etengabe haietara egokitzea eskatzen duela konbentziturik, bi urte barru berriz biltzea erabaki dugu lortutako aurrerapenak eta hartu beharreko neurriak ebaluatzeko.

Caspar EINEM

Zientzia eta Garraioko ministroa (Austria)

Wolf-Michael CATHENHUSEN

Estatu-idazkari Parlamentarioa Hezkuntza eta Ikerketako Ministroa Federala (Alemania)

Jan ADE

Komunitate Flamenkoaren Ministerioren zuzendari nagusia Hezkuntza Departamentua (Belgika)

Gherassimos ARSENIS

Hezkuntza Publikoko eta Gai Erlijiosoetako ministroa (Grezia)

Gerard SCHMIT

Goi-mailako Hezkuntzako eta Ikerketako Komunitate Frantsesaren Ministerioaren zuzendari nagusia (Belgika)

Gudruridur SIGURDARDOTTIR

Idazkari Nagusia Hezkuntza, Zientzia eta Kultura Ministerioa (Islandia)

Anna Maria TOTOMANOVA

Hezkuntza eta Zientziako ministroa (Bulgaria)

Ortensio ZECCHINO

Unibertsitateetako eta Garapen Zientifiko eta Teknologikoko ministroa (Italia)

Margrethe VESTAGER

Hezkuntzako ministroa (Danimarka)

Kornelijus PLATELIS

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa (Lituania)

Maija RASK

Hezkuntza eta Zientziako ministroa (Finlandia)

Louis GALEA Hezkuntzako Ministroa (Malta)

Eduard ZEMAN

Hezkuntza, Gazteria eta Kiroleko ministroa

(Txekiar Errepublika)

Tonis LUKAS

Hezkuntzako ministroa (Estonia)

Claude ALLEGRE

Hezkuntza Nazional, Ikerketa eta Teknologiako ministroa (Frantzia)

Ute ERDSIEK-RAVE

Schleswig-Holstein Estatu Federatuko Hezkuntza, Zientzia, Ikerketa eta Kulturako ministroordea

(Estatu Federatu Alemaniarren Kulturako ministroen Konferentzia Iraunkorra)

Adam KISS

Goi Hezkuntza eta Zientziako Estatu-idazkariordea (Hungaria)

Pat DOWLING

Arduradun nagusia

Hezkuntza eta Zientziako ministerioa (Irlanda)

Tatiana KOKEK

Goi Hezkuntza eta Zientziako Estatu-idazkariordea (Letonia)

Erna HENNICAT-SCHOEPGES

Hezkuntza Nazionaleko eta Lanbide Heziketako ministroa (Luxenburgo)

Loek HERMANS

Hezkuntza, Kultura eta Zientzietako ministroa

(Herbehereak)

Wilibald WINKLER

Hezkuntza Nazionaleko Estatu-idazkariordea

(Polonia)

Andrei MARGA

Hezkuntza Nazionaleko ministroa (Errumania)

Pavel ZGAGA

Goi-mailako Hezkuntzako Estatu-idazkaria

(Eslovenia)

Agneta BLADH

Hezkuntza eta Zientziako Estatu-idazkaria

(Suedia)

Baronesa Tessa BLACKSTONE of Stoke Newington

Enplegu eta Hezkuntzako Estatu-ministroa (UK)

Jon LILLETUN

Hezkuntza, Ikerketa eta Gai Erlijiosoetako ministroa

(Norvegia)

Eduardo Marçal GRILO

Hezkuntzako ministroa (Portugal)

Milan FTACNIK

Hezkuntzako ministroa (Esloveniako Errepublikak)

Jorge FERNÁNDEZ DÍAZ

Hezkuntza, Unibertsitate, Ikerketa eta Garapeneko Estatu-idazkaria (Espainia)

Charles KLEIBER

Zientzia eta Ikerketako Estatu-idazkaria (Konfederazio Helvetiarra)